

Dositeo nire semeorde kuttunari azken gutuna despedida modura

Karlos Linazasoro

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1988



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpa*



Dositeo nire semeorde kuttunari azken gutuna despedida modura

Karlos Linazasoro

Julene Azpeitia 1. ipuin lehiaketa

1988

2. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Karlos Linazasoro (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Me dejaron aquí completamente solo, abandonado, royendo como un perro mi propia soledad y mis recuerdos.

(Julio Llamazares)

Inguru honetan baziren, bai, orain urte batzuk makina bat baserri, guztiko zindo eta aberatsenak gainera. Ya lo creo. Ez orain moduan. Begiak irekitzea ere kosta egiten baita lar hondamendi honen aurrean.

Aspaldiko urtetan abiatu ziren lehenak hirira —non ote dago hiria?— lan eta zorion bila. Gerrarekin batera edo. Ezin esan ziurtasunez ez bainengoen ni larrialdi haietan oraindik bailaran. Ni, argi esatekotan, gaur aterpe ematen didan baserri honetara ezkondu nintzen.

Honezkero, halere, badira bost urte pasatu bakardade osoan bizi naizena. Bai baserrian, bai bailara teputu honetan ere.

Eta bakardadea jasangaitza gertatzen da. Estreinako momentuetan batik bat. Ez zara belarriak zulatzen dizkizun ixiltasun mingarri honetara inoiz ohitzen, sekula ez. Halarik ere, azkenean, inguruaren eta zure barrunbearen ixiltasunak indarrak deuseztatzen dizkizu eta bere magalean erortzen zara ezinbestean. Eta lipar horietan, etsipena zuren bihotzari atxikitzen zaionean, oroimena da irtenbide bakar, mugatua.

Lasai doa denbora herrian, paisaia bezain triste eta abaildua. Eliz-dorreko erloju zaharra ere orain bost urte gelditu zen, Domingo nire senarraren heriotzarekin batera.

Biok bat egin zuten azken arnas larrian eta bakardade beldurgarri honetan utzi ninduten, deskontsolaturik.

Erlojuak ere sumatua baitzuen, nonbait, bere zaintzaile kuttunari azken unea helduxea zitzaiola, eta bion artean hitzarmen sekretu bat zinatua balute bezala, Domingori azken lur xextokadak botatzen nizkion unean erlojuaren errailetatik inoiz ez bezalako hil-kanpaikada ozen minberak irten ziren, gero betirako mutu, hilotz gelditzeko.

Ordunik ez dut orduaren berri zehatzik izan. Egia esan, aspaldian bota zuten hemen denborak aingura, Domingo eta biok bakarrik gelditu aurretik.

Egunak, minutuak, orduak, ez dira gure herrixkatik iragaiten.

Hori hirirako gelditzen da, soilik.

Zer axola, gainera, uda kixkalgarri edo negu gorri izan?

Ezin ahaztuko dut hiltzen naizen bitartean Domingoren heriotza zakarra. Bost urte pasa badira ere, atzo izan balitz bezala gogoratzen dut oraindik.

Eguraldi sargoria zen bolada hartan kale-bazter guztietan, eguna joa eguna etorri; sargoriegia gauza onerako. Antzemana nion nik eguraldi hari ez zela parte onekoa, ez zetorkigula handik gauza onik. Eta esan ere, esan nion makinatan Domingori, hura ez zela sanao, ez itxurazkoa, bazter guztiak desegin behar hark hondamendia baizik ez ligukeela ekarriko.

Eta halaxe izan.

Domingori ordea, burua erabat joaten hasia zitzaion eta ezin inola ere nire esanei atentzio izpirik ere prestatu.

Izan ere, ordurako bakardade beldurgarrienean bizi gineneantzat, ba al zegoen oraindik, bada, bailara hark eta guk geuk pairatzen genuen hondamendia baino deskalabru handiagorik?

Egun hartan bertan baietz erakutsiko zidan halabeharrak.

Domingo, usu bezala, goiz ñabar hartan ere soro maskalduetara abiatu zen uzta gainbegiratzeko intentzioz. Eguerdi aldera, azaltzen ez zela ikusiz, asaldatu egin nintzen.

Sapaian trumoiak baitzebilien zemaika aspaldian, bere indar guztia noiz askatuko bailebil. Eta Domingori gaurkoz uzta lasai uztak, bihar ere hortxe izango duk eta, agindu banion ere, seme bakarra herriko gainontzeko jende guztia bezala joan zitzaigun egun ilunetik, Domingok ez zituen buruan bi pentsakizun baizik, uzta eta erlojua, erlojua eta uzta, eta hala nire esanei jaramonik egin gabe goiz sargori hartan ere uzta nola idortzen zen erreparatzea irten zen.

Ez nuen gehiago bizirik ikusiko.

Lursail lehor hari derrigorrezko bisita egin ondoren, ilunabar jasangaitz hartan eliz-dorreak erlojutzarrari giltza ematera igo zen, eta bera azken berrogei urtetako lanean ari zela, azantzaz zein baurreaz amaituriko trumoiak eztanda egin eta tximista galdu baten zartailu argitsuak gorputzean jo zuen nire Domingo maitea, bertan burdinoletako tximinietatik irteten den kea baino beltzago utzi zuelarik.

Trumoi eta inezturak hastearekin batera, edo hasi aurretik egia esan behar bada, ni sukaldeko leihoaren magalean eseria nengoen, hemendik oraindik ere, primeran ikusten baita elizaren kanpandorre xuxen zorroztua, eta han ikusi nuen Domingo lanean, sorgor, arriskurik sumatu gabe, hain baitzuen ordurako burua joana koitaduak, tximista batek lehenik kanpajian jo eta hurrena Domingoren gorputza zeharkatuz.

Euri-jasa gotor, haserretu eta hiltzaile hark eulbera fin eta hozkirritsu bati bide eman zionean Domingoren bila irten nintzen. Haragi erre usainak bailara usteltzen zuen, txoriak ernegatzen. Gorputz erdia kanpandoretik zintzilik zuen Domingok, txapel jausia eliz atariaren oinetan. Eta hantxe bertan, orain zenbait urte pilotaleku bilakatzen zen eliz atariaren babes ondoan eman nien lur, ahal moduan, senar maitearen gorputz-arima hilotzei. Oraindik ere barkatu ez ote

nauen kezkarerekin esnatzen naiz amets gaiztoen eraginez, izerditan blai barrenkanpoak, ez nuelako kristau batek merezi moduan enterratu, baina neonek ere izan nituen makina bat duda eta erreusimen, ez pentsa, hemendik behera bota egin behar da gizona gero, esaten nion neure buruari, kikilduta aurkitzen nintzen zeharo kanpandorrean panorama haren aurrean, inori laguntza ezin eskaturik, eta zin egiten dizut Domingo zu handik behera jauzi aurretik errosario osoa errezatu nuela, aspaldiko partez On Teodolfoarekin egiten genuen bezala, eta mesedez konprenitu behar didazu ez zitzaidala beste erremediorik gelditzen.

Hala, bultzada bat eman eta gorputz eskerga hura erori zen lur puska berberean enterratu nuen, Estrella gure txakur itirinarekin intzirien erdian.

Azken astebetean ohean luze-luze daramat. Hankak mazkaldu zaizkit zeharo eta ezin honezkero pausorik eman ere.

Segurasko gaurko egun antzua besterik ez dut ezagutuko. Horretxegatik ari naiz gutun hau amaitzeko ahalegin guztiak eta bi egiten, bai baitakit bihar etxe zein mendiak gainezkatzen dituen elur-meta hauek baino hotzago izango naizela.

Barkatuko al dizkit Dositeo gure seme maiteak hanka-sartze eta zimurdurak, eta hartuko al ditu letra txiki hauek erreusimentik gabe, beti izan zen seme onaren apaltasun eta maitasunez.

Mendi-kaxko honetan ere uda hilkor harekin batera hasi ziren komeri eta deskraziak. Treintaiseisekoan oker ez banabil. Hala errepikatu izan zidan Domingok leloa bizi izan zen artean. Nik baietz esaten nion, zer egingo dugu guk bada Domingo, gauzak hola etortzen dituk eta onartu egin behar, ez dik bueltarik eta lasaitu zaitea, berak ordea ezin ulertu, ezin onartu jendeak etxeak hustu, gurdi zaharra leporaino kargatu eta hirira alde egitea.

—Gu hiruok behintzat ez gaituk ba hemendik mogituko, inondik inora!

Oker zebilen Domingo alabaina, zu ere, Dositeo, beste biztanle guztiak batera aldendu baitzinen ultramarrean omen dagoen Ameriketa handira, han aberastu eta gu jasotzera etorriko zinenaren promesa eginez amabirjinen aurrean.

Ez zara etorri oraindik, baina etorriko zara, mutil apartekoa izan baitzara beti.

Aitak ez zizula barkatuko jakinik, gau izartu batez gure oheraino inguratu eta aita tabernan zela profitatuz bi muxu handi eman eta Ameriketa handira noa xuxurlatu zenidan begiak blai zenituela, eta esan aitari ahal badu barka nazala eta zuen bila etorriko naizela sin falta aberasten naizenean.

Goiz-albaren estreinako printzek Domingoren hitz garratzak ekarri zituzten.

—Guk ez dugu inoiz semerik izan Joakina, aditu, sekula ez! Baina nahiz berak ez aitortu bizi izan zen artean —egoskorra baitzen zien por zien eta amore propio izugarriduna— nik antzematen nion barkatua zizula, Dositeo, ihesaldi ixil hura, ez barkatua bakarrik, zure etorreraren zai igarotzen zituela egunak ere antzematen zitzaion begi tristetu haietan, eta zientotan pentsatzen nuen On Teodolfo gure apaizak jaiegun eta Santu Handien ospakizunetan kontatzen zigun Ulises indartsuaren ixtori zoragarriarekin, Teodolfo jaunak berak asmatua dudarik gabe, hain baitzuen gauza horietarako abildade eta trebezia, eta kontatzeko grazia hala nola dotorezia, igandeko sermoiak

entzuteko desio bizian izaten ginela elizkide guztiak, lanegunak ere joaten baitzitzaizkigun ia ohartzeke kasik, asteak zazpi egun izan beharrean lau izango balitu lez.

Guztietan dotoreena eta berak gehien errepikatzen ziguna horixe zen, Ulises deitzen omen zen indartsuarena, eta horregatixe etortzen zitzaidan burura hainbestetan Ulisesen ixtorioa, zurearen pareko iruditzen zitzaidalako, Dositeo, eta zu ere Ulises gudariaren modura, mila ezbehar eta sofrikario pairatu ondoren, etxera itzuliko zinela amesten nuen, zahar baina sasoitsu, eta guk Penelope eta Telemacoren gisara besarkatuko zintugula, hainbeste urteren buruan, geure betiko Itacako baserrian.

Eta Ulisesena asmakizun bazen ere, zure etorrera, Dositeo, egunaren argia bezain zindo ikusten nuen, bai neure begietan, bai Domingorenetan ere.

Barkatu behar didazu seme luzamendutan banabil baina gure bailarako notizi horiek zuri kontatzea derrigorrezko deritzot, zuk, gajo horrek, hainbeste urte artzaintzan inguruko mendi mardul hauen gailur eta belardi zabaletan ibiltzen zinen kariaz, eta etxera hain urritan jaisten zinelarik, hemen gertatzen ziren laurdenez, erdiez asko jota, ez zenuen ezaguerarik izaten. Zuk, endemas, gutxi galdetu eta aitak ezer ez erantzun. Baina hiruok ongi ezagutzen genuen elkar eta ezin hasiko naiz sasoi honetan aitzakiak bilatzen.

Badira, halarik ere, azken arnas egin aurretik, zurekin konfesatu beharrekoak eta denbora izan genuenean kontatu ez genizkizunak.

Ez naiz ni sekula lixkarbide eta sesioa jartzearen aldeko izan. Hori zuk ere badakizu sobera, Dositeo.

Neri nahiz egoki ez iruditu, Domingok ez zidan beste gauzarik agindu eta errepikatu bolada luze batean.

Alegia, zu Dositeo, ez zara nire seme propio-propioa, semeordekoa baizik, baina nire erraietako goritasunean —ez bederatzi hilabete hemezortzi ere bai— sortu eta bizi izan bazina bezala maite izan zaitut nire gorputzeko indar guztiekin eta azken unera arte maiteko zaitut atziperik gabe; eta honezkero konturatuko zinen zer agindu zidan bada Domingok hain setatiki eta egundoko tinkotasunez, oraindik orain izutu egin bainaiz hagitz jartzen zidan bisai serio hura oritzerakoan, ez dik asunto honen gainean mutikoak sekula santan ezer jakin behar, ez dik ezer sumatu behar, eta neure partetik bedaio ahalegin guztiak egingo zirela eta lasai egoteko, berak ordea ez zela nahikoa ahaleginetan aritzea, zin egin behar didan, zin, ez ahalegin, eta azkenean zin egin behar izan nion, Dositeo, zerbait baretuko bazen.

Kontu egingo zenuenez, dotore mantendu dut emandako hitza.

Gaurdaino; hemendik aurrerantzekoak ez baitu sekretu handirik izango niretzat eta ezin hori konfesatu gabe ahalegin, ez baitzitzaidan ez aproposa, ez egokia iruditzen, eta hala, mesede ederra egin dizudalakoan lasaixeago sentitzen naiz eta jainkoarengana hurbiltzeko prest.

Otean lehen momentuan erabat lur jota geldituko zara, zerbait tristetua ere bai. Ez larritu Dositeo maitea, denborak ahazten laguntzen du, nahiz gauza batzuk urteen iragan geldiezinak ere ahantzarazten ez dizkizun.

Tira baina, aitak zure hobe beharrez jokatu zuen hola, nire iritzien kontra hasera batean, ze gero, gertatutakoaren berri hasera batean, ze gero, gertatutakoaren berri Arizti-Gaineko amonak zehatz-mehatz eman zidanean,

orduante primeran konprenitu nituen Domingoren beldur eta ixiltasunak, eta pixka bat atzipetua ere sentitu nintzen egia esan, gauza horiek zure emazte izan behar duen señoritari aurrez argi eta garbi adierazi behar baitzaizkio, begira zer dagoen eta zer ez dagoen, hemen egi guztiak mahai gainean diren bezala esanak, eta horrela, alde onak eta txarrak pixatu eta neurtu ondoren erabakia hartu, kalipuz, ezkontza behin hartzen den sakramentu santua bita, gero ez baitute balio argorio eta damutzeak, zapal dutako bideak ez baitu sekulan atzera egiteko aukera eskaintzen eta.

Domingok, ezagutu ginenean, seme bat zuela kontatu zidan, bi hilabete eskasekoa, eta emaztea erditze trantzean hil zela arnasa heltzen ez zitzaiola biriketara, eta baserri galanta ere bazuela azienda eta soro sail ederrez gainezka egina, eta ea ezkonduko al nintzen berarekin ahal bezain pronto, seme harek ama bat behar zuela-ta.

Horixe izan zen esan zidan guztia egin zidan estraineko bisitan, eta bigarren eta azkenean ere ez zidan, horiez aparte, beste gauza handirik luzatu.

Bazegoen ordea zerbait kontatu beharrekoa, gero nik, urte batzuk beranduago, jakin nuena, bihotzeko min handienarekin gainera.

Baina tira, kontu horiek zahartuxeak gelditu dira eta gure arimetan sufrimendu gehiago ez jartzekotan ixilik gelditu eta asunto honen gainean txandapasa egingo dut.

Zeharo akitua sentitzen naiz seme, eldarnio amaigabe baten erdian nabigatuz bezala. Begi-ninietan ilunbea dut honezkero nagusi eta bihotzean erroitz ainube bat ireki zait.

Ez nuke tekeia izan nahi ordea, eta jaunak beste indar izpi bat emango balit zurekin kontu-kontari jarduteko, eskertuko nioke poliki.

Eta behin ardailan jarri ezkerro, eta aspaldiko partez, nire berri ere emango dizut zertxobait Dositeo, zure ama goxoa denaz ez baitakizu tutik ere.

Hitz gutxitan esanda, hemendik ez hain urrun dagoen Zizurkilgo Fraisoro umezurtz-etxe famatuan hazi eta hezi ninduten, hango moja langileek erreka-zulo baten inguruan jaso nindutelarik, bi hilabete eskasekin.

Ez dut, hortaz, zuk izan duzun zorterik korritu, eta mojatxo haiek ongi ederki zaindu baninduten ere, gurasoen maitasuna beti izango da aldaezina eta sua bezain beroa. Ez dituenak badaki. Hamar urte iragan nituen etxe hartan eta inor ez zen ene erreklamoan azaldu. Hala, Tolosako aita Sakramentino baten eskutik, hiri handi horretan bertan zegoen —han izango al da oraindik?— moja Trinitarien komentuan sartu ninduten.

Nik bakarrik dakizkit, jainko ahalguztidunaz aparte, noski, han pairatu behar izan nituen gose, madarikazio eta jipoiak!

Hura zen lan egite zitala, hura zen neurririk gabeko gose-pasatzea, hura zen jipoi hartze galanta! Ez makala ez, *ya lo creo!* Alferrik egin nuen makina bat saio handik ihes egiteko, guardia zibilak baino begirale setatiagoak baitziren hango Sor Lorena eta hango Sor Arcadia, dena miatu behar harekin erbi herrena ehizatzen zen baino aiseago harrapatzen nindutelarik; eta haiek gero pasa behar izaten nituen oinaze eta torturak, ixil eta malko bakar bat ixuri gabe, okerrago izaten baitzen bestela.

Zenbaterainokoak izaten ziren hango astakeriak kontura zaitezzen, Dositeo, gauza bakarra esango dizut, horrekin soberan gelditzen baitira gainontzeko letra guztiak, hain baita basati zein sinistezina orain eskribitu behar dizudana.

Azken ihesaldian ere, aurrekoetan lez, moja txuri (arima beltz) haien eskuetan erori nintzen aise benetan.

Ez zen, ordea, ordungoa jipoi galanta batzuekin konponduko, ez. Ordungoak azkena behar zuela izan deliberatu zuten mojatxoek, ez zen beste ihesalditik ametituko. Horretarako, ia neurrira egindako zulo beltz iluna prestatua zuten niretzat soroko azken zoko ezkutuenean.

Ez zuten berea egin, probidentzi ni salbatzera etorri baitzen azken momentuan, jainkoaren aginduei jarraituz segur asko.

Beti bezala harrapatu ninduten azken aproba hartan eta ondoren kanpandorreko gela ilun hezera eraman gaua pasatzera. Han Anttonirekin fortunatu nintzen ordea eta honetxek ekarriko zidan salbaziorako bidea. Bai berari ere.

Anttoni ni bezalako gazte alaia zen, beti umore onean zebilena. Sor Ignacia gure superiorak ordea ezinikusia zuen neska harenganako eta Izaskunen gertatutakoaz ederki profitatuz, kanpandorreko kartzela moduko hartan giltzapetu zuen, sekula sekulorum, deabru gorria erraietan ezkutatua zuela argudiatuz.

Bazeraman hilabete gutxienez tankera horretan ni besarkatu ninduenean.

Ez zitzaion irrifar arrastorik sumatzen inondik, erreusimen eta izu baizik begietan, gorputz maxkalduan, hezur muskilduetan.

Ez nuen ia ezagutu ere egin hain zuen amarautua bisaia.

Zerbait lasaitu nuenean hitzak etorri zitzaizkion tropelka ahora eta han hasi zitzaidan argorio gorrien artean hizketan, laster izango ditun sorgin horiek gure bila, azken gau hauetan izugarritzko joan-etorriak zebilzkiten erreka inguruko soroan barrena, aitzurrak eta palak ere ikusi dizkinat, izugarritzoren bat prestatzen ari ditun zerri horiek, ai Joakina, aurki hemen dizkinagu, eta nik lasaitzeko agindu nion serio, ahaleginak egiteko ixilik mantentzen eta gorde zitzala azken indar eta kuraiak handik irteteko ordurako.

Eta Anttonik esan bezala, gauerdiak hiru moja ekarri zituen gure gelara, hitzik esan gabe eskailera luze aldapatsuak jaitsiarazi eta, sukaldetik barna, zulozar hura prestatua zuten tokiraino inguratu gintuzten.

Zulo beltz hartara, baina, ez ginen Anttoni eta ni eroriko, beste hiru madarikatu haiek baizik. Merezi moduan.

Handik irten ginen, Dositeo, azkenik eta berriro ere bazetorkigun aje eta kalamidade mardula. Ez ginen gu, bistan zenez, patxadan bizitzeko jaiok izan.

Uda horretan bertan gerra zibila piztu zen, jainkoari eskerrak zuk ezagutu ez zenuena, hori baita dudarik egin gabe gizon batek asmatu dezakeen astakeriarik handiena, anai artean tiro eta liskar bizian hastea.

Tolosan nenbilen ni orduan, neskametzan, ospe handiko mediku baten etxean eta guda amaitu artean han gelditu nintzen, jotake amaierarik gabeko lanean, kalera ere irten gabe kasik, ez zegoen giroa pasieran ibiltzeko modukoa eta.

Makina bat gudari sendatu behar izan genituen etxe haretan, kolorerik begiratu gabe gainera, gizonak hilzorian dagoenean ez du kolorerik, postura horretan denak dira berdinak pentsamendu bakarra izaten baitute guztiek buruan, salbazioa, eta horixe da benetako mediku baten zeregina, kolore guztien gainera gizonak salbatzea, errepikatzen zidan Don Astingencio nire nagusi zenak. Haiek izan ziren urte luze neketsuak, beldurrez aidean gau eta egun, nondik tiroa jasoko, nondik bonba lehertuko.

Egunero-egunero soldadu gazte batek parte pasatzen zigun etxeraino etorrita, nik salda eta kafesnea eskaintzen nizkion bitartean. Bere ahoz jakin nuen nire bihotzeko Anttoni maitea neskame zegoen baserrian hilik aurkitu zutela beste sei pertsonekin batera, nagusi-sembleak segur asko, gauzez baserriari su eman eta lo zeuden bitartean guztiak kixkaldu zirelarik.

Esaten zuena ezin sinisturik harantz abiatu nintzen arrisku guztiei aurre eginez, zoro baten postura berberean, hura zen nire oinaze eta egonezina.

Han aurkitu nuen, Uzturreranzko bide lohituari jarraituz, hainbestetan bisitatu izan nuen baserri segaila, goitik behera eroria, hondatuak harri zein egur pairantak, eta gehiago bertaratu gabe korrika bizian itzuli nintzen nagusiaren etxera.

Nigar malkotan igaro nituen hurrengo hiru egun luzeak, mokadurik probatu gabe, hits eta murrinsu. Anttoni izan baitzen nire adiskide min bakarra, munduan ezagutu nuen pertsonarik mazalena. Asturu pixka bat izan balu gajoak gaur euskalerrri guztiak izango luke ezagun eta miretsia izango litzateke artista guztiengatik, eta akaso, nork jakin, igual izango luke berak hain gogoko zituen estranjeriko aktorea irtirin haiek ezagutzeko parada, nire Anttoni ere ez baitzen gorputzez edo zogitasunez Dietrich edo Hayworth haiek baino eskasagoa.

Halarik ere, bazen artista bat, Dositeo, Marilyn bezala ezagun egin zena mundu osoan barrena, Anttonik izugarri miresten zuena.

Eta gizonezkoek zer esanik ez!

Hura zen emakume puska, haiek atzekalde eta posturak!

Erotu egin behar gizon guztiak, ernegatuak zeharo berotasunak ezin eutsirik ibiltzen ziren gero puska batean. Ya lo creo! Bada, Anttonik esaten zidan moduan, berak ere Marilyn muxugorri hura bezain famatua izan nahi zuen, telebisiio eta zinematian hainbestetan ikusi genuen neska hura bezalakoa izatera iritsi nahi zuen eta horretarako egin behar zen lehen gauza izenez aldatzea zen, Anttoni izena ez baitzen prexixamente artistarako egokiena, eta hala, komentuan zer egin jakin gabe geunden igande arrats uher batean, interesatuak eta biok pentsatu genuen Leonor oso izen polita eta aproposa zela aktorearako.

Handik aurrera beste lagun guztiek eta nik neonek ere bi izenak txandatu genituen, Anttoni batzuetan, bestetan Leonor, Izaskungo hiru saio zoragarri haiek antzeztu zizkigun arte, orduz geroztik Leonor izenarekin bakarrik gelditu zelarik, nahi nire bihotzarentzat beti Anttoni izango zen.

Eta behin aipatu dudan ezkerro, Izaskungo pasadizoa ere kontatu beharko dizut, Dositeo, komentu zahar hartan igaro genituen urte ilunetan zehar askori gertatu zitzaigun gauza barregarri bakarra izan baitzen.

Komentuko neskartil eta moja guztiek urtean egiten genion bisita Izaskungo Amabirjinari, ez penaturik gainera, huraxe izaten baitzen lotura triste haretatik askatzeko aukera bakarra. Egun bereziaren zain egoten ginen beraz irrika bizian.

Irteera bakar hura eskas xamarra suertatzen zitzaigun ordea, eta horrela hasi ginen, egun batzuk lehentxeago, irteera haiek nolabait gehitzeko pentsamendutan.

Anttonik berak primerako bat izan zuen eta guztiok konforme geundela eta eskatutako laguntza izango zuela zin egin genion algara ozenen artean.

Sekula baino kontentago irten ginen komentutik, poza eta beldurra nahasten zelarik gure bihotzetan, barregarria baitzen ideia alde batetik, bestetik ordea lar arriskatua, are gehiago moja madarikatu haiekin. Erabakia hartuta zegoen alabaina eta ez genuen atzera egingo.

Mezetatik irten eta elizaren atzekaldean dagoen belazera abiatu ginen mokadu bat hartzera. Hortxe hasi ziren komeriak, Anttoni belauniko jarrita, begiak elizaren horma ubelduan finkaturik, besoak zabal-zabal eginda eta malkotan blai masailak. Gu berriz, pentsatua bezala, apika-apika inguratzen joan gintzaizkion, serio eta harridura aurpegiz, handik pixka batera mojak ere hurbiltzen hasi zirelarik.

Orduantxe hasi zen Anttoni hitz solteak ahoskatzen, nigar kontsolagaitz batean; orduantxe hasi zen Anttoni, mojen muttutasunaren erdian, bakarriketa luze naharoan, salba nazazu Izaskungo Ama errukitsua infernuko gar mingarrietatik, izan ezazu erruki bekatari honetaz eta aparta nazazu zuk, Amen artean Amarik garbiena zarenak, munduko lizunkeri eta lohitasun guztietatik... baina ez, ez zaitea joan oraindik Izaskungo Ama erregina, ez nazazu utzi... lur likits eta suminbera honetan..., hitz horiekin batera lurrera ahuspez erori eta konortea galdu balu bezala geldituz.

Mojak berriz, Anttoniren aurpegi, ardaila eta imintzioen aurrean erabat jota eta sinistuta gelditu ziren, hain izan zen zoragarria Anttoniren jarduera.

Hala moja txuri (anima beltz) guztiak Izaskungo Ama berrikusteko egarri bizian jarri zitzaizkigun eta aste horretan bertan beste bi bisitaldi egin genizkion Amabirjinari, ea guztien aurrean azaltzen zen bedeinkapen eta kontseiluak partitzera; ez zen ordea Anttoniren begietara baizik hurbiltzen eta, nonbait, gaizki pentsatzen hasiak ziren ordurako, nonbait sumatua zuten sorgin haiek gezur eta atzipetan genbiltzala guztiak komunio santuan, azken bisitaldi haren ordainetan espantuzko zigorrak pairatu behar izango baikenituen, Anttoni maitea kanpandorreko gela ezkutura urtebeterako konfinatzen zutelarik.

Oroimena nire gorputzera intsigitzen da semea amaren erraietara atxikitzen den lez. Oinazearen ezinegon bekaiztiak ordea ez du barkamenetan jarduteko astirik eta ikuitzen duen oro bihurtzen du itzal zein tristura. Oroimena ezik; berak ez baitu inoiz eztanda egiten, pairanta baita zakur kateatu baten izatea bezala. Oroimenak ez baitio oinaze enasari habiarik egiten bere kutxa patxarosoan.

Baina oroimena eta oinazea nahasten diren unean, orain niri nahasten zaizkidan moduan, irtenbide bakarra gelditzen da: heriotza.

Heriotzaren aurrean ez omen da izan behar koldar baizik bipil, zure barrube amarautuetara lasai lerratzen utzi behar omen zaio, ernegatu gabe bazter guztiak; hala ez omen da sufritu ere egiten, postura horretara bakarrik

irabazten baita zerutako erreinu gorena eta jaun ahalguztidunaren miresmen amaigabea.

Hori guztia egia baldin bada, nik bedaio, nahiko lan izango dut zeruetako aingeru xuriak zelatatzen, hango bake santuaz gozatzen.

Lehenxeago ere komentatu dizut, Dositeo maitea, zure aitak eta nik nola ezagutu genuen elkar, oso axaetik izan ez bada ere. Ez da, egia esan, gauza handirik gelditzen kontatzeko, ikusiko duzunez zeure begi propioekin.

Don Astingencio medikuaren etxean nengoela Domingoren lagun bat etorri zen kontsultara auskalo nongo gaitzak jota. Handik hamabost egunera berriro bueltatu zenean ezkontzekotan zebilen lagun aberats bat bazuela, zeharo jatorra eta langilea, eta ea ezagutu nahi al nuen galdegin zidan.

Ez nuen duda izpirik izan. Baiezkoa eman nion eta larunbateko perian topatuko genuela agindu.

Larunbat hartan bertan, zerkausiko banku batean eseririk bata bestearen aldamenean, esan zizkidan lehen adierazitako hitz eta gezur-erdi haiek.

Handik zortzi egunen buruan Aita Teodolfok ezkondu gintuen herri guztiaren begien aurrean, zuk urtebete betetzear zenuela.

Gustora sentitu nintzen baserrian, etxekoandre, ama eta emazte bezala. Inoiz losindu ez ninduen ditxak gorputz guztia inarosten zidan, zorabiora arte ia.

Eta zu izan zinen, Dositeo, nire begietako nini, nire bizitzaren arima eta sostengu, auzokide guztien mira eta irribarrea, zure aita Domingoren poza, urguilua.

Horrexegatik gelditu zen aita hain lur-jota galde zintuenean; horrexegatik bizi izan zen zure etorreraren espero luzean, gau eta egun kanpoko atea noiz irekiko ote, esperantzarenugarra beti mantendu nahian.

Ni bailarara etorri nintzenerako mordoxka bat jende joana zen, gerra aurretik batzuk, gerrarekin beste zenbait. Gerra-ostean ihes egin zuten, halere, gehientsuenek, bailaran ez baitzen hondamendi, arraildura eta zarama besterik gelditu. Eta, batez ere, arrangura, elkarrenganako gorrotoa.

Herrixkan gelditu ginen ehun biztanleok bat egin genuen hura guztia altxatzeko intentzioarekin —pentsamendu eta diferentzien gaintik— eta lar kosta bazitzaigun ere, baserri, soro eta inguruko basoak txukun asko utzi genituen. Ya lo creo.

Bi urte behar izan genituen, kalipuz jotake lanean, hura guztia dandai, behar moduan egokitzen.

Jendearen bisaietan murrindura eta nekea besterik ez zen islatzen ordea, akidura eta ausiabantza. Eta egunak igaro ahala, auzokideak urrituz zihoazen, hiri handirantza, ultramarreko urre usainak zoraturik buruak.

Egun batean, inoiz ahantzi ez dudan egun batean, Domingoren adiskiderik minena zen Tomaxek, sendi osoa gurdian sartu eta buruarekin adio ezkutu bat eginez, bakardade ixil, beldurgarrienean utzi gintuen.

Baina hura gertatu aurretik, zuk hiru urte betetzen zenituen egun berberan, plazako kiosko txikia eta iturria konpontzen ari ginen bitartean, tupustean eta gure begi lausotuen aurrean, gizon mazkal bat azaldu zen, poltsatxo bat bizkarrean zekarrela.

Ttipia zen, baina gihartsua, urrunekoa dudarik gabe, ez baitzuen gutariko inork planta horretako gizasemerik inoiz ikusi. Herrixka guk bezain ongi ezagutuko balu bezala —gure harridura eta jezargoen erdian— esplikaziotan hasi zitzaigun, hau hala egin behar zenukete, beste hura ere nahiko poliki gelditu da, geure euskara bezain garbi ederrean ari zela hizjario taigabeen. Inork ez genion nor zen edo nondik zetorren itaundu, guztiok gauza berbera pentsatu baikenuen haren hizkuntz eta ezaguerak ikustearekin batera, hau urrundik bidali diguten aingerua besterik ezin izan zitekek edo bestela —hau fede gutxikoek soilik pentsatu zuen— baso gorenetatik jaitsi den basajaun arrotza. Berak ordea, pentsamendua igarriko baligu lez, ezetz adierazi zigun beti euskara garbian, ez zela bera ez aingerua, ez basajauna, urrundik etorritako —Tibetetik esan ote zuen egingo nuke apustu— Amtschi umil ibiltari bat besterik ez zela, guk mediku bezala ezagutzen genuen horietako bat, eta lekurik balego eta eragozpen handirik ez balitz bederen, herrian gelditzea atsegin izango zitzaiola, berak ere lagunduko ligukeela gogo onez bailara berriz zutik jartzen eta han zeuden gaixotasunak betirako sendatzen.

Birritan pentsatu gabe baietz erantzun genion, gelditzeko beldurrik gabe, ongi etorria zela munduko azken konfinean zegoen bailarara. Ez ginen berehala damutuko hura ametitzearekin, harek eskaini zizkigun laguntzak eta osasunbideak neurri guztietatik kanpo gelditzen baitziren.

Plazan bertan zegoen etxe hustua eskaini genion, lehen denda izandakoa. Bizitzeko moduan gelditu zen zenbait garbiketa eta arreglu egin ondoren.

Lehen denda zegoen gela hura profitatuz, Tenzing-ek —hala deitzen baitzen— kontsulta lander bezain berezi bat eraiki zuen. Berezia diot ez baitzuen, adibidez, Don Astingencio nire nagusi ohiaren kontsultaren antz izpirik ere, harek erabiltzen zituen tramankulu, erreminta eta botikaren laurdenak ere ez baitzituen gure Tenzing jakintsuak erabiltzen, eta jokatu nuke lepoa sikiera ezagutu ere ez zituela ezagutzen.

Berak esaten zigunez laurogei mila gaixotasun ezagun zitzakeen, ez bakarrik ezagutu, sendatu ere bai, bat ezik. Eta bakar hori zahartasuna omen zen, honek ez zuela inongo erremediorik eta gainera berari kontra egitea jainko guztien lege zaharrenari kontra egitea omen zen, pekatu mortala beraz, zahartasuna besozabalik onartu behar zuela bizidun orok, heriotzaren atalaurre bezala.

Guk ezin jakin gorputzak zenbat gaitz harrapa zitzakeen, ezjakinak baikin erabat jakintsuaren ezagueren ondoan, baina herriko biztanle guztiak —eta bat edo beste libratzen zen ajeez soilik— aise sendatu zituen: gorakoak, beherakoak, erdikoak (horietako plagak ere iritsi baitziren mutur honetaraino kalte latzak ekarriz), bai eta grabeagoak ere, gure artean osaera posiblerik ez zutenak, hala nola, minbizia, petxuko gaitza, legena, elbarritasunak eta beste hainbat eta hainbat. Inongo sendagailu edo botikarik gabe gainera, berak poltsatxo hartan ekarri zituen orratz, liburuxka eta kolorezko perla ttipi batzuk ezik. Eta bere eskuak. Horietxekin egiten baitzituen milagrorik zoragarrienak, ikutze soilarekin katarro, sukar eta tankera horretako pena zaputzak sendatzen baitzizkigun.

Eritasun grabeagoetarako orratz fin luze batzuk erabiltzen zituen, kolore eta lodiera desberdinetakoak, eta gorputz osoaren barna ipintzen zizkigun zientoka, izugarrizko kuidoak.

Ongi gogoan dut lehenengo saiorako ni neu prestatu nintzela, inor ez baitzen oraindik sasimediku arrotzaren eskuetan jartzen ausartzen —bakizu Joakina, porsiakasore— eta hala, udazken partean sufritu izaten nituen erreuma eta hezurretako minez ia tente jarri ezinik nenbilenez, beregana joan nintzen itsumustuan. Tenzing jakintsuak, sekulako jendetzaren aurrean, bizkarrean izugarrizko orratz mordoa jarri zidan, haietatik lodienei buruan su ematen zielarik, gori-gori jarri bitartean. Asaldatu egin ginen guztiok franko haragi erre kiratsa somatu genuenean, baina Tenzing-ek lasaitzeko adierazi zigun, izpiritu txarrak erretzen ari ziren seinale besterik ez zela hori eta.

Ordunik, badakizu zuk hori ongi Dositeo, ez dut hezurretako min gehiagorik izan. Gero jendea, noski, nirekin egin zuen miraria ikusiz, bere eskuetan jartzera animatu zen, orratzei beldur apur bat galduz, gaitz guztiak sendatzeko esperantzan. Eta esan bezala, izugarriak sendatu zituen, bai orratzez, bai bere herri urrunek mendi altuetan —egizu kontu, Dositeo, zenbaterainokoak izango ziren hango mendiak, Tenzing-ek kontatzen zigunez, zeruarekin bat egiten zutela laino xuritsen gainetik eta han bizi omen zen Buda deritzon beraien jainkoa— biltzen ziren sustrai, zuhaitz azal eta mineralez eginiko pastillatxoez baliatuz.

Hiri handian ere izan zuten mirari horien berri eta bat-batean bailara jendez gainezka agertu zen, probintzi guztiko eri eta elbarrituak etortzen hasi zirelarik.

Egun batean ordea, Tenzing-ek iritsi moduan alde egin zuen, inork ikusi gabe, arrastorik utzi gabe, eguzkiak ihintza irensten duen lez. Etxean, hamabost egunetan jasotako dirutza utzi zigun —kanpotarrei kobratu egin baitzien— notatxo batekin: "konpon ezazue honekin elizako teilatua. Adio, Tenzing".

Tenzing onaren desagertzeak kalte handiak ekarriko zituen bailarara, Dositeo, handik urte batzuen buruan zure aita Domingo eta ni bilakatuko ginelarik paraje hauetako biztanle bakar, antzuak.

Ilargi zilarreztatuaren argiak elur izoztuaren xuritasun labaina areagotzen du gau beltz honen erdian. ixiltasunak etxeak lurperatzen ditu ahanzturarik jasangaitzenez.

Haize beltzak barreiatuak ditu, jada, nire errauts ustelak, belardietako lore ximelak balira bezala.

Luzea izan da, eternala, zure etorreraren esperantzan, Dositeo, igaro dudana bitzita akitua.

Aurki ez naiz bizirik izanen. Aurki, nire maindire zaharren artean ziraun pozointsuek habi eginen dute eta nire aurpegi larreak euri horixkaren hezetasuna sentituko du uholdeka teilatu zulatuaren barna.

Etortzen zarenean, Dositeo, nire heriotzaren dardarizo eta isla sentituko duzu logelaren hormetan itsatsia, bidetxiorreko zuhaitz herdoilduen besanga soilduetan, bizirik dirauten txorien kantu agonikoetan.

Etortzen zarenean, Dositeo, —ez baitut dudarik egiten etorriko zarenaz— aspaldian izanen naiz lahar eta sastrakadi eskerge hauen sareetan murgildua eta labarriaren auhene berdeak belarriak zulatuko dizkizu.

Baina honezkero bidean zara, entzuten ditut zure pauso bideratuen hotsak, amildegian korrika dabilen zure hitz ozenen oihartzunak, malda goratan larriagotzen diren zure bihotzaren taupada gotorrak. Sentitzen dut zure elur

usaina ikuilutik gora abiatuz, sukaldeko zur txirriatzailean begiak, oinak, lerratuz eskaileratan barna.

Ni betiko logelan izanen natzaizu zain, Dositeo, ustelduak honezkero haragiak baina begiak zabal-zabal eginda. Zure behatzek herts ditzaten utzi nituen horrela. Beharbada, oraindik, Estrella zaindari eta begirale izanen dut, ohearen oinetan tinko. Hala bada, akabatu ezazu tiro batez hor duzun eskopetarekin, nik ez bainuen, azken unean, hori egiteko ausardiarik izan.

Eta hemen, nire alboan, mesanotxearen gainean aurkitzen duzun paper mordo horiztatu eta lardaska eginiko hori, zuri, Dositeo maitea, despedida modura idatzi nizun azken gutuna da.